

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	SEGURTASUNA ETA OSASUNA MAKILLAJE INTEGRALEAN	Iraupena	90
Kodea	MF0064_2		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Makillaje integrala	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Makillaje soziala (zeharkakoa)	Iraupena	90
	Bitarteko eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillaje-tekniken aplikazioa (zeharkakoa)		70
	Aurpegiko eta gorputzeko fantasiatzko makillaje-tekniken aplikazioa (zeharkakoa)		50
	Mikropigmentazio-teknikak aplikatzeko ekipoak, instalazioak eta produktuak prestatzea (zeharkakoa)		30
	Mikropigmentazio-teknikei buruzko aholkularitza eta haien aplikazioa (zeharkakoa)		90
	Tatuaje-teknikak aplikatzeko ekipoak, instalazioak eta produktuak prestatzea		30
	Tatuaje artistikoko teknikei buruzko aholkularitza eta haien aplikazioa		90
	Makillaje integralaren lanbideko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		120

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0064\_2: MAKILLAJE INTEGRALA APLIKATZEKO BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK PRESTATZEA.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Larruazalaren ezaugarri eta kondizio anatomiko-fisiologikoak azaltzea, eta bezeroaren behar estetikoekin eta eskaerekin erlazioatzea, makillaje-, mikropigmentazio- eta tatuaje-teknikak aplikatu ahal izateko.

E11.1 Larruazal-organoaren eta eranskinen egitura eta fisiologia orokorra azaltzea, makillaje-, mikropigmentazio- eta tatuaje-prozesuetan aplikatzeko.

E11.2 Larruazalaren funtzioak eta hark makillaje integraleko prozesuekin duen erlazioa deskribatzea.

E11.3 Larruazal-motak emulsio epikutaneoaren eta fototipoaren arabera sailkatzea, makillaje-prozesua bezero bakoitzaren larruazalera egokitzea.

E11.4 Aurpegiko zenbait guneren —bekainen, betazalen, ezpainen eta orbainen— ezaugarri bereziak eta haiek mikropigmentazio-prozesuetan duten eragina azaltzea.

E11.5 Ezohiko neurriak hartzea, tratamendua aldi baterako atzeratzea edo betiko baztertzera eskatzen duten larruazaleko alteraziorik ohikoenak identifikatzea.

E11.6 Larruazala orbaintzeko eta birsortzeko prozesuan eragiten duten eta mikropigmentazio- edo tatuaje-prozesua aplikatzean ezohiko neurriak hartzea, aldi baterako atzeratzea edo betiko baztertzera eska dezaketen bezeroaren osasun orokorreko egoerak identifikatzea.

E11.7 Zenbait faktorek —adina, pisua eta/edo bolumena handitzea edo txikitzea eta abar— larruazalean eragindako aldaketa anatomikoak eta haiek tatuajearen duten eragina zerrendatzea.

A2: Makillaje-prozesuetan erabiltzen diren aparatuek, tresnak, materialak eta gehigarriak aukeratzea, eta garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodo egokiak aplikatzea.

E12.1 Makillaje-, mikropigmentazio- eta tatuaje-prozesuetan erabiltzen diren tresnen, gehigarrien eta elementu osagarrien ezaugarriak identifikatzea eta deskribatzea.

E12.2 Makillaje integraleko prozesuetan erabili beharreko baliabideak, pigmentuak eta teknikak identifikatzea.

E12.3 Erabili eta botatzekoak diren osagarriak eta berriz erabiltzeko desinfektatu edo esterilizatu egin behar direnak sailkatzea.

E12.4 Mikroorganismoak sailkatzea eta haien transmisio-mekanismoak eta haiek saihesteko moduak azaltzea.

E12.5 Garbiketaren, desinfekzioaren eta esterilizazioaren kontzeptuak desberdintzea.

E12.6 Makillaje integraleko prozesuetan erabiltzen diren material eta tresnetarako desinfekzio-metodo egokiak azaltzea.

E12.7 Tresnak eta materialak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko kasu praktiko batean, tratatu beharreko materialaren (pintzelak, belakiak, borlak eta abar) konposizioa ezagutzen dela:

- Material-multzo bakoitzean ohikoenak diren kutsatzaileak azaltzea.
- Material-mota bakoitzerako desinfekzio- eta esterilizazio-metodo egokiena hautatzea.
- Arrazoiak emanez azaltzea zer tresna eta material garbitu, desinfektatu edo esterilizatu behar diren eta infektiorik ez transmititzeko nola manipulatu behar diren.
- Aparatu, tresna, osagarri eta materialak metodo egokiak baliatuz garbitzea, desinfektatzea eta esterilizatzea.

EI2.8 Mikropigmentazio- eta tatuaje-prozesuetarako egokienak diren garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodo eta teknikak adieraztea.

EI2.9 Materiala esterilizatu eta gero prestatzeko eta biltegitratzeko irizpideak ezartzea.

A3: Makillaje integraleko prozesuetan erabiltzen diren kosmetiko apaingarrien eta produktu berezien ezaugarriak, konposizioa, motak eta jarduera-mekanismoak aztertzea, eta haiek sortzen dituzten efektuekin erlazionatzea.

EI3.1 Kosmetiko apaingarrien konposizioa eta jarduera-mekanismoak azaltzea.

EI3.2 Mikropigmentazio- eta tatuaje-prozesuetan erabiltzen diren pigmentuen eta produktuen konposizioa eta jarduera-mekanismoak azaltzea.

EI3.3 Pigmentuen eta larruazalaren arteko interakzioa, eta horrek denboran izaten duen bilakaera deskribatzea.

EI3.4 Makillaje integralarekin erlazioa duten kolorearen teoriaren alderdi nagusiak deskribatzea.

EI3.5 Pigmentu-koloreen nahasketen legeak eta makillaje-prozesu guztietan haiek duten aplikazioa azaltzea.

EI3.6 Nahi ez diren tonuak zuzentzeko kolore osagarrien nahasketek duten aplikazioa azaltzea.

EI3.7 Makillaje-mota guztietan kolore-oinarriak larruazalaren kolorearen arabera hautatzen direla azaltzea.

EI3.8 Makillaje integraleko produktuak gordetzeko ingurune-kondizioak eta osasun-agintaritzek onartutako argibideak deskribatzea.

A4: Makillaje-, mikropigmentazio- eta tatuaje-teknikak aplikatzearen arrisku potentzialak ebaluatzea, segurtasun- eta osasun-kondizioekin — pertsonalak (profesionalaren eta bezeroaren artekoak) zein instalazio eta baliabideenak— erlazionatuz.

EI4.1 Mikropigmentazioa eta tatuajea aplikatzean, indarrean dagoen araudiaren arabera, zer segurtasun-neurri eta arrisku higieniko-sanitarioak prebenitzeko zer neurri aplikatu behar diren deskribatzea, establezimendu, instalazio, altzari, aparatu, gehigarri, tresna, pigmentu, kosmetiko espezifiko eta erabilera topikoko sendagarriei dagokienez.

EI4.2 Makillaje integraleko prozesuetan osasunerako arriskuak prebenitzeko, bezeroa eta profesionala babesteko zer neurri hartu behar diren deskribatzea.

EI4.3 Jarraibideen edo, medikuaren agindurik badago, beste mediku batengana bideratu izanaren segimendu-jarduera azaltzea.

EI4.4 Bezeroaren dokumentazioan azaldu behar duten datu pertsonalak, teknikoak eta grafikoak, baimen idatziak jaso behar duen informazioa eta bezeroari eman behar zaion dokumentazioa aipatzea.

EI4.5 Makillaje integraleko teknikekin erlazionatutako arriskuei buruz bezeroak jaso behar duen informazioa eta prozesuaren aurretik, prozesuan zehar eta prozesuaren ondoren jarraitu behar dituen jarraibideak eta kontuan hartu beharrekoak deskribatzea.

EI4.6 Makillaje integraleko teknika segurtasun- eta higiene-kondizio egokietan aplikatzeko bezeroa nola prestatu behar den azaltzea.

EI4.7 Makillaje integraleko prozesuetako instalazioak desinfektatzeko eta esterilizatzeko produktu eta metodoak deskribatzea.

EI4.8 Erabili eta botatzekoak ez diren materialak mantentzeko kondizioak deskribatzea.

EI4.9 Hondakinak kudeatzeko jarraitu beharreko arauak deskribatzea.

EI4.10 Makillaje-prozesuetan istripurik gertatuz gero lehen laguntzak nola aplikatu behar diren azaltzea.

A5: Zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea eta desbideratzeak zuzentzeko neurriak proposatzea.

EI5.1 Prozesuen eta emandako zerbitzuaren kalitatea definitzen duten parametroak identifikatzea.

EI5.2 Zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko irizpideak zehaztea eta azaltzea.

EI5.3 Bezeroaren gogobetetze-maila ebaluatzeko egin beharreko galderak adieraztea.

EI5.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan:

- Zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko teknikak aplikatzea.
- Behar izanez gero, kalitatea hobetzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.

## Edukiak

### 1. Larruazalaren anatomia eta fisiologia, makillaje integraleko prozesuei aplikatuta.

- Larruazalaren anatomia eta fisiologia.
- Larruazaleko gune batzuen (ezpain, bekain, betazal, bularreko areola, buru-larruazal, pubiseko ile, azazkal, orbain eta abarren) ezaugarri anatomikoak eta haiek makillaje integraleko prozesuekin duten erlazioa.
- Larruazalaren funtzioak.
- Larruazalaren berezko kolorea eta hark makillaje integraleko prozesuetan duen garrantzia.
- Larruazalaren tipologia.
- Larruazaleko funtsezko lesioak.
- Makillaje integraleko prozesuetan eragiten duten larruazaleko alteraziorik ohikoenak.
- Zenbait faktorek —adina, pisua eta/edo bolumena handitzea edo txikitzea eta abar— larruazalean eragiten dituzten aldaketa anatomikoak, eta haiek mikropigmentazioan eta tatuajeetan duten eragina.
- Makillaje-prozesuak egiteko kontraindikazio erlatiboak edo absolutuak izan daitezkeen larruazaleko alterazio ohikoenak.
- Narritadura-erreakzioak eta erreakzio alergikoak.

## 2 Higienea, desinfekzioa eta esterilizazioa, makillaje integraleko prozesuei aplikatuta.

- Mikroorganismoen sailkapena. Kutsatzea eta prebentzioa.
  - Mikroorganismo patogenoak eta oportunistak.
  - Odol bidez transmititzen diren mikroorganismoak eta gaixotasunak.
  - Larruazalaren bidez transmititzen diren mikroorganismoak.
- Higienaren, desinfekzioaren eta esterilizazioaren kontzeptuak.
- Edozein makillaje-prozesutan transmiti daitezkeen infekzioak.
- Kutsatzaile-motak.
- Makillatzeko tresna eta materialei aplikatutako garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak eta produktuak.
- Kosmetiko apaingarriak manipulatzeko segurtasun-arauak eta kontuan hartu beharrekoak.
- Materialak desinfektatu eta esterilizatzeko aparatuak. Material esterilizatuaren erabilera eta biltegitratzea.
- Instalazioen garbiketa eta desinfekzioa. Baldintza higienikoak eta sanitarioak.

## 3 Segurtasun-neurriak.

- Makillaje integraleko jardueraren erregimen juridikoa.
- Mikroezarpenak eta tatuajeak egitean, indarrean dagoen araudiaren arabera, aplikatu behar diren segurtasun-neurriak, establezimendu, instalazio, altzari, aparatu, gehigarri, tresna, pigmentu, kosmetiko espezifikoko eta erabilera topikoko sendagarriei dagokienez.
- Makillaje integraleko prozesuetan osasunerako arriskuak prebenitzeko, bezeroa eta profesionala babesteko neurriak.
- Hondakin-mota desberdinen kudeaketa.
- Makillaje integraleko prozesuetako lehen laguntzak.

## 4 Makillaje integraleko prozesuetan erabiltzen diren kosmetikoak eta produktuak.

- Kosmetikoak: definizioa, osagai orokorrak eta forma kosmetikoa.
- Kosmetiko apaingarriak: makillaje-oinarriak, oinarri akats-zuzentzaileak, ezpainetarako eta begietarako kosmetikoak eta koloreteak.
- Fantasiatzko makillajeak aplikatzeko kosmetikoak.
- Antzerki, zinema, telebista eta antzeko bitartekoetako makillajeetan erabiltzen diren produktuak eta osagarriak.
- Pigmentuak eta koloratzaileak: kolore-oinarrien konposizio kimikoa. Eszipienteeak.
- Kolore-oinarriek zenbait kanpo-eragileren aurrean (laserraren, eguzki-erradiazioen, produktu kimikoen eta abarren) erreakzionatzen duten modua.
- Pigmentuen eta larruazalaren arteko interakzioa, eta horrek denboran izaten duen bilakaera.

## 5 Argia eta kolorea.

- Argia: Intentsitatea eta kalitatea.
- Argi-motak eta haien makillajean duten eragina.
- Kolorearen teoria eta horrek makillaje integralean duen aplikazioa.
- Kolorea. Ezaugarriak.
- Kolore-nahasketa aditibioa eta kengarria.
- Kolore-nahasketaren legeak.
- Kolorearen legeek makillaje-prozesuetan duten aplikazioa.
- Kolore beroak eta hotzak.
- Koloreen harmonia makillaje-prozesuetan.
- Pigmentuen kolorea eta mikropigmentazio- eta tatuaje-prozesuetan horrek izaten duen bilakaera.

## 6 Prozesuen kalitatea.

- Kalitatearen kontzeptua.
- Kalitatearen ebaluazioa eta kontrola, makillaje integraleko zerbitzuetan.
- Zerbitzu baten kalitatea definitzen duten parametroak.
- Bezeroaren gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.
- Makillaje-zerbitzuak ematean izandako desbideratzeak detektatzeko teknikak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Makillaje integrala.